

# ARROSA ETA LEUNA

Testua: ADELA TURÍN

Irudiak: NELLA BOSNIA

Itzulpena: FERNANDO REY

Kartoi gogorrean egina. 21,5 x 27 cm. 40 orrialde. 15 €.

**Arrosa eta leuna** (euskara)

ISBN 978-84-7681-787-2. Kalandraka-Pamiela.

**Rosa caramelo** (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-798-0. Libros para Soñar.

**Rosa caramelo** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-799-7. Tras os montes.

**Rosa caramél** (katalana)

ISBN 978-84-8464-830-7. Kalandraka.

**Rosa rebuçado** (portugesara)


ISBN 978-989-8205-84-1. Livros para Sonhar.

*-Maiteak -esaten zieten aitek-, eguerdi-lili guztiak jaten ez badituzue, peoniak jaten ez badituzue, ez zarete inoiz izango zuen amak bezain polit eta arrosak, eta ez duzue inoiz begi distiratsurik izango. Inork ez du zuekin ezkondu nahiko handitzen zaretenean...*

Orain dela 30 urtetik gora, Adela Turín «Dalla parte delle bambine» izeneko bilduma argitaratzen hasi zen Italian. Handik laster, Esther Tusquetsek argitaratu zuen Espainian, «A favor de las niñas» bilduman. Koedukazioari eta sexuen arteko berdintasunari buruzko erreferentzia bihurtu zen bilduma, eta zenbait hizkuntzataraz itzuli. Denbora pasatu bada ere, gaur egun ere beharrezkoak dira liburu hauek.

Paskualina eta elefantetxo emeak bakarturik bizi dira eguerdi-lili eta peonia lorategi batean: hori dute janaria behar bezalako itxura izateko, azal arrosa eta leuna izateko. Horretaz gainera, kolore bereko oinetako, xingola eta lepokoak jantzen dituzte. Denek betetzen dute gurasoen ametsa, Paskualina izan ezik. Horregatik, gurasoek kargu hartzen diote, ez dela besteak bezalakoa izanen onartu arte. Axalekokeria eta itxurari ematen zaion garrantzia handiegia ageri dira istorioan, baita gizartearentzako kritika ere, jendearen geroa erabaki eta mugatzen baitu sexuaren arabera. Baina, batez ere, askatasunaren aldeko kantua da. Nella Bosniaren irudiek indarra ematen diote testuari figura errealista eta tonu biziak.

Alegia bat da, «Arturo eta Klementina» eta bildumako beste liburuen modura, helburu jakin batzuk dituen: gizartean zor zaion tokia ematea emakumeari, eta estereotipo sexistak eta bazterkeria desagerraraztea, jokamoldeak aldatuz mundu hobea egiteko.



■ **Gala:** giza harremanak.

■ **Adin egokia:** 5 urtetik gora.

■ **Nabarmenezko modukoak:** «Arturo eta Klementina», «Bonobo betaurrekodunen egiazko historia» eta «Zorioneko hondamendia» ipuinen egile eta irudigile berberak; koedukazioa, berdintasuna, askatasuna, estereotipoak.

## Adela Turín

(Italia, 1939)

Artearen historialaria eta idazlea. 60ko hamarkadan haurrentzako literaturaren ezaugarri sexistak aztertu zituen. Milanen, Rivolta taldean hartu zuen parte (mugimendu feministari lotutako taldea). Familia patriarkalaren generoko bazterkeriari gogor egiteko asmoz, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu zuen, eta 1975etik 1980ra bitartean, hogeitaz liburutik gora argitaratu zuen. Adela Turín eta Nella Bosnia, garai hartan, «La Rinascente» ari ziren lanean. Urte batzuk geroago, Parisera joan zen, eta han, Silvie Cromer-ekin, «Du côté des filles» elkarrekin sortu zuen, 1994az geroztik hezkuntzako materialen sexismo kasuak azterten dituen eta argitaletxe, erakunde eta herritarrak sensibilizatzeko mekanismoak sortzen dituen. Gaur egun, irakurtzeaz eta bidaiatzeaz gainera, artikuluak idatzi eta hitzaldiak ematen ditu.

## Nella Bosnia

(Italia, 1946)

Artea Milanen ikasi zuen, eta dekoratzaile eta estilista lana egin zuen «La Rinascente» enpresarentzat, ehungintzako produktuak sortzen. Enpresan, Lan horretan, Adela Turín ezagutu zuen, eta, harekin batera, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu zuen. Italiako eta Frantziako zenbait argitaletxerentzat egin du irudigile lana.

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela.com  
etxea  
soltxate@pamiela.com

